BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5571

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 20koa, Kulturako sailburuordearena, 2024ko ekitaldirako publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak emateko dena.

2024ko maiatzaren 14an EHAAn (93. zk.) argitaratu zen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2024ko maiatzaren 8ko Agindua, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko dirulaguntzak ezarri eta 2024ko ekitaldirako deialdia egiten duena.

Aginduaren 9. artikuluan aurreikusitako Kalifikazio Batzordea bildu eta eskabideak aztertu ondoren, proiektuak baloratzeari ekin zion, Aginduaren 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kultura Ondarearen zuzendariak egindako ebazpen-proposamena ikusita, eta aipatutako aginduaren 14. artikuluarekin eta aplikazio orokorreko gainerako xedapenekin bat etorriz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde eskatzaileei dirulaguntza ematea, zehazten diren zenbatekoetan.

Bigarrena.- II. eranskinean jasotako erakundeak aurkeztutako eskaera ezestea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.- Pertsona eta erakunde onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan oro har indarrean dauden gainerako baldintza guztiak ere.

Laugarrena.- Banan-banan jakinaraziko zaie ebazpen hau pertsona eta erakunde interesdunei, eta ohartaraziko zaie ezen, laguntza eman zaielako jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean, pertsona edo erakunde onuradunek berariaz uko egiten ez badiote laguntzari, laguntza onartu dutela ulertuko dela.

Bosgarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, jende guztiak horren berri izan dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, lehen jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 20a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente-kodea	Onuraduna	Aurkeztutako programa	Puntuak	Zenbatekoa
008-APR-2024	Belllota Herramientas S.L.	Bellota Herramientas enpresaren artxibo historikoa	90	6.370,00
010-APR-2024	Club Deportivo Eibar	Artxibo sistema sortzeko programa	80	5.600,00
001-APR-2024	Euskal Herriko Txistulari Elkartea	Euskal Herriko Txistulari Elkartearen Artxibo Funtsa Antolatu, Katalogatu, Digitalizatu eta Zabaltzeko Plana. 2024rako Plangintza	90	11.223,00
002-APR-2024	Fundación cultural privada Indalecio Prieto	Concha Prieto funtsaren digitalizazioa 2024 (5. fasea)	70	6.175,00
011-APR-2024	Fundación educación marianista Domingo Lázaro	Aldapeta Maria Ikastetxearen artxiboa antolatzea eta digitalizatzea. (Marianistak) 2024 (3. Fasea)	70	4.125,00
004-APR-2024	Fundación Torre Olaso	Olaso Dorrea Fundazioaren artxiboa digitalizatzeko proiektua	55	9.257,00
003-APR-2024	Gerediaga (Durangaldeko adiskideen gerediaga Elkartea)	Carlos Merino argazkilariaren argazki-funts historikoaren antolaketa	65	3.481,00
009-APR-2024	Hondarribiko kultura ondarearen zaintze eta hedatzerako arma plaza	Gipuzkoako Monumentuen Batzordearen artxiboko liburuen eta dokumentazioaren inbentarioaren proiektua	50	2.880,00
006-APR-2024	Prov Franciscana de Arantzazu / Arantzazuko Frantziskotar Prob	Arantzazuko frantziskotarren artxiboaren digitalizazioa (2. fasea)	70	12.555,00
005-APR-2024	Prov Franciscana de Arantzazu / Arantzazuko Frantziskotar Prob	Artxibo historikoen funtsen artxibo-antolaketa, bereziki XX. mendeko dokumentazioa dutenena: Arantzazuko Literatur Artxiboa: Bitoriano Gandiaga Funtsa (Fase II)	70	8.382,00
		GUZTIRA		70.048,00

II. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKAERAK

Espediente-kodea	Eskatzailea	Aurkeztutako programa	Ezesteko arrazoia
007-APR-2024	Federación de asociaciones obreras sindicales	LAB sindikatuaren artxiboa	Erakunde eskatzaileak ez ditu betetzen deialdi-aginduaren 2.2 artikuluan ezarritako onarpen-baldintzak.